

SAN TELMO MUSEOAN ESKAINIKO DEN INFORMAZIORAKO ETA ERRESERBAK KUDEATZEKO ZERBITZUA, JARDUERAK ETA BESTELAKO ZERBITZUAK, DINAMIZAZIO-ZERBITZUA BARNE, KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN KLAUSULA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN ORRIA

- 1. KONTRATUAREN XEDEA**
- 2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA**
- 3. ESLEIPEN PROZEDURA**
- 4. ALDAERAK**
- 5. KONTRATUKO DOKUMENTUAK**
- 6. INDARRALDIA**
- 7. KONTRATUAREN PREZIOA**
- 8. PREZIOAREN ORDAINKETA**
- 9. PREZIOEN BERRAZTERKETA**
- 10. PUBLIZITATEA**
- 11. BERMEAK**
- 12. GAITASUN BALDINTZAK**
- 13. PROPOSAMENEN AURKEZPENA ETA DOKUMENTUAK**
- 14. BALORAZIO IRIZPIDEAK**
- 15. EBALUAZIO BATZORDEA**
- 16. PROPOSAMENEN IREKIERA**
- 17. KONTRATUAREN ESLEIPENA**
- 18. KONTRATUAREN OSATZE ETA FORMALIZAZIOA**
- 19. KONTRATUAREN ARDURADUNA**
- 20. KONTRATUAREN GAUZATZEA**
- 21. KONTRATUKO FUNTSEZKO BETEBEHARRAK**
- 22. DATUEN BABESA**
- 23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETUA GORDEZKEKO BEHARRA**

24. IRUDI ESKUBIDEAK ETA JABETZA INTELEKTUALA

25. ZEHAPENAK

26. KONTRATUAREN ALDAKETAK

27. KONTRATUA ETETEA

28. PRESTAZIOA JASOTZEA

29. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA

30. ZUZENBIDEKO ARAUBIDEA

31. ESKUMENEN JURISDIKZIOA

I. ERANSKINA. ABAL EREDUA

II. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENETSITAKO BIDEA ZEHAZTEA

III. ERANSKINA. AITORTZA ARDURATSUA

IV. B. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKORAKO EREDUA

V. ERANSKINA. AITORTZA ARDURATSUA, LAN ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ARLOKO BETEBEHARRAK BETE DIRELA EGIAZTATUZ

VI. ERANSKINA. ADIERAZPENEN NOTARIO AKTARAKO EREDUA, BEHARREZKO KAUDIMEN ETA GUTXIENEN GIZA BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA EGIAZTATZEKO, LIZITATZAILEAK BESTE ERAKUNDEEN KAUDIMEN ETA BITARTEKOETAN OINARRITZEKO NAHIA AZALTZEN DUEN KASUETARAKO

SAN TELMO MUSEOAN ESKAINIKO DEN INFORMAZIORAKO ETA ERRESERBAK KUDEATZEKO ZERBITZUA, JARDUERAK ETA BESTELAKO ZERBITZUAK, DINAMIZAZIO-ZERBITZUA BARNE, KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN KLAUSULA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN ORRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio honen xedea da batetik, SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k kudeatzen dituen erakusketei dagokienean San Telmo Museoak eskainiko dituen bisitei (gidatuak ala ez) buruzko informaziorako zerbitzua, jarduerak eta bestelako zerbitzuak kontratatzea eta, halaber, baita horien erreserba egitea ere. Bestetik, Preskripzio Teknikoen Orriko **4.2 Klausulan** zerrendatu dinamizazio-lanak kontratatzea. Guzti hori, Orri honetan eta Preskripzio Teknikoen Orrian ezarritakoarekin bat.

Aipatu informazio, erreserba eta dinamizazio zerbitzuak eskaintzeaz gain, eta kontratu honen barruan, SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasuna bermatu nahi du. Horretarako, kontratistak familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak ahalbidetuko dizkie kontratuaren gauzatzeari atxikiko langileei.

Era berean, kontratua sinatu eta gero ager daitezkeen beharrak direla medio SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k, egoki baderitzo, Preskripzio Teknikoen Orriko 8.1 Klausulan zehaztu informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzuaren ordutegia eta/edo 8.2 Klausulan zehaztu bitartekaritza-zerbitzuaren ordutegia zabaltzea eska diezairoke kontratistari.

Horrela bada, enpresa kontratistak prezio zehatza ezarriko dio, halabeharrez, informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzuaren ordu bakoitzari. Aipatua kalkulatzeko enpresa kontratistak informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzua emateko eskaini duen urteko prezioa 1043z zatituko da. Bitartekaritza-zerbitzua prezio berberean eskaini beharko du ere.

Horrek ez dio konpromisorik ekarriko SAN TELMO MUSEOA, S.A.-ri, informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzuaren ordutegia handitzeko xedearekin enpresa kontratistari eginiko eskaerari dagokionean. Nolanahi ere, SAN TELMO MUSEOAK enpresa kontratistari eginiko eskaeraren guztizko kopuruak ezingo du hitzarmenari esleitu balioaren % 20a gainditu.

2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Erakunde kontratatzailea SAN TELMO MUSEOA, S.A. da (aurrerantzean, SAN TELMO MUSEOA).

Kontratazio-organoa SAN TELMO MUSEOKO Gerentea da.

3. ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratua, prozedura ireki bidez, Orri honetan xedaturiko balorazio-irizpideen arabera eskaintza ekonomikorik hobereana aurkeztu duen lizitatzailari esleituko zaio.

4. ALDAERAK

Ez dira onartuko.

5. KONTRATUKO DOKUMENTUAK

Esleipena egin eta gero formalizatu kontratuaz gain Orri honek, Preskripzio Teknikoen Orriak eta esleipendunak aurkeztu eskaintzak kontratuko izaera izango dute ere.

Esleipendunak aipatu dokumentuak sinatu beharko ditu, beren onespena egiaztatzeko, kontratua formalizatzerakoan.

6. INDARRALDIA

Kontratuaren indarraldia urtebetekoa izango da, aipatua formalizatu eta hurrengo egunetik hasita. Eta urtebetez luza daiteke, erakunde kontratatzaileak bere kabuz erabakiz gero. Kontratuaren gehienezko iraupena, balizko luzapena barne, bi urtekoa izango da.

Luzapena kontratua bukatu baino bi hilabete lehenago jakinaraziko zaio enpresa kontratistari eta derrigorrezkoa izango da berarentzat.

7. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa zehazterakoan, bere xedea osatzen duten bi jarduerak bereizi beharra dago. Honela, beren proposamen ekonomikoetan lizitatzailerek kontratuaren xede diren bi zerbitzuen prezioak zehaztu beharko dituzte:

- **Dinamizazio-zerbitzua:**

- **Dinamizazio-zerbitzuaren prezioa (bitartekaritza-zerbitzua kanpo)**

Enpresa lizitatzailerek 60 minutuko saio bat eskaintzeak duen prezioa unitarioa zehaztu beharko dute beren proposamen ekonomikoan. Horretarako, gida bakar batek talde bakarrarentzat egin duen 60 minutuko saioaren gehienezko prezio unitarioa **50 eurokoa** izango da, Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (BEZ) kanpo.

90 minutuko saio baten prezioa kalkulatzeko, 60 minutuko saiko prezio unitarioa 1,5z biderkatuko da.

Kontratuaren balio osoa kalkulatu ahal izateko, gutxi gorabehera bada ere, aipatu zerbitzuek 2013, 2014 eta 2015ean (egun arte) eman dituzten saioren kopurua erabili da eta aipatu kopurua aurreikusten diren aldaketa kuantitatiboak aintzat hartuz egokitu da (2016an Donostia Europako Kultur Hiriburua izango dela ikusita bereziki, enpresa kontratistak eskaini beharko dituen zerbitzuek gora egin baitezakete horren harira).

Aipatu aurreikuspenak ez du kontratazio-konpromisorik ekarriko SAN TELMO MUSEOrako.

2015-2017			
Programa mota	Iraupena	Saio aurreikuspena	
		2015/11-2016/11	2016/11-2017/11
Bisita gidatu eta bestelako dinamizazio-jarduerak	60 min.	196	196
Bisita Gidatuak	90 min.	126	126
Bisita-tailerrak	90 min.	170	170

– Bitartekaritza-zerbitzuaren prezioa.

Beren proposamen ekonomikoan, enpresa lizitatzailleek bitartekaritza-zerbitzua emateko ezarri duten orduko prezio unitarioa zehaztu beharko dute. Horretarako, gida batek ordubeteko bitartekaritza-zerbitzua eskaintzeak **25 euroko** gehieneko prezio unitarioa izango du, Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (BEZ) kanpo.

Proposatu prezioak (dinamizazio-zerbitzu zein bitartekaritza-zerbitzurako) ondokoak hartuko duela ulertuko da: zerbitzua eskaintzeak dakartzen berezko kontzeptu guztiak eta aipatu zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren langileei loturiko gastu guztiak (soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta ezohiko ordainsariak, baja eta gaixotasunarengatiko ordezkapenak, istripu-aseguru indibidualak, etab.), gehi dagokien zerga (BEZ salbu), aseguru, lizentzia, baimen eta beste gastu orokor guztiak.

• Informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzua:

Beren proposamen ekonomikoan, enpresa lizitatzailleek informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzua emateko ezarri duten orduko prezio unitarioa zehaztu beharko dute. Horretarako, lizitazioaren gehieneko aurrekontua **20.000 eurokoa** da urteko, Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (BEZ) kanpo.

Proposatu prezioak ondokoak hartuko duela ulertuko da: zerbitzua eskaintzeak dakartzen berezko kontzeptu guztiak eta aipatu zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren langileei loturiko gastu guztiak (soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta ezohiko ordainsariak, baja eta gaixotasunarengatiko ordezkapenak, istripu-aseguru indibidualak, etab.), gehi dagokien zerga (BEZ salbu), aseguru, lizentzia, baimen eta beste gastu orokor guztiak.

Halaber, lizitatzailen prezioek ondokoak hartuko dituzte ere:

- SAN TELMO MUSEOko arduradunarekin egin beharreko koordinazio-lanak.
- Hezitzaileen eta giden prestakuntza.
- Jardueren edukia barneratzea.
- Jardueren dinamizazioa, gauzatzea.
- Bisita gidatu eta tailerren aurretiko eta ondoko prestaketa-lanak, materialak txukuntzea barne.
- Beharrezko materialak prestatzea eta espazioak egokitzea.
- Balorazioak jaso eta kudeatzea eta memoria eta txostenak idaztea.
- Jardueren funtzionamendu egokia bermatuko duten antzeko zenbait lan.

Halaber, lizitatzailerek proposatu prezioek enpresa kontratistak zerbitzua gauzatzeko beharko dituen bitarteko, erreminta, ibilgailu, ekipamendu, instrumentu, informatika-ekipamendu eta gailu guztiak barneratuko dituzte.

Ezingo da kopururik jasanarazi SAN TELMO MUSEOari, Koordinatzaileak zerbitzua gauzatzeko erabili dituen orduen kostua dela-eta.

Lizitatzailerek bi zerbitzuetarako zehazturiko prezioak gehieneko prezioen azpitik egon daitezke; baina ezingo dute aipatuak gainditu inolaz ere. Prezioetako bat gainditzeak lizitazioetik kanpo gelditzea ekarriko du.

Bisitako proposatu prezio unitarioak ez dira bisita motaren arabera aldatuko (gidatu, gidatu-tailer, tailerra, jarduera, etab.), ezta hizkuntza, ezohiko ordutegi edo asteko egunaren arabera ere (igande eta jaiegunak barne).

Eskaintza ekonomikoen kontu-unitatea euroa izango da. Prezio unitarioaren kopuruak bi dezimal izango ditu gehienez.

Lizitatzailerek SAN TELMO MUSEOak ordaindu beharko duen BEZa idazpen independente gisa adieraziko dute.

Esleipendunak lizitazioaren deialdia eta kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeak dakarren gastua ordaindu beharko du.

SPKLTBaren 88. artikulua eraginetarako, kontratuari esleitzen zaion balioa (BEZ kanpo), balizko luzapenak barne, **170.400 €koa da.**

Aipatu balioa SPKLTBaren 88.5.a) artikulua dioenari jarraiki kalkulatu da, hau da, aurreko hamabi hilabetetan zehar esleituriko antzeko kontratuen benetako balioa aintzat hartuz eta hasierako kontratuaren ondorengo hamabi hilabetetan aurreikusi kopuru-aldaketan arabera egokituta;

kontratuaren balizko iraupen osoa, luzapenak barne, hartu da ere; hau da, bi urte.

1. Klausulako hirugarren paragrafoak SAN TELMO MUSEOari ematen dion Preskripzio Teknikoen Orriko 8.1 Klausulak zehazten duen informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzuaren ordutegiaren zabaltzea eta/edo Preskripzio Teknikoen Orriko 8.2 Klausulak zehazten duen bitartekaritza-zerbitzuaren ordutegiaren zabaltzea eskatzeko gaitasuna ikusita, aurreko balioa kalkulaterakoan, halaber, kontratuak izan dezaken gehienezko kopurua aintzat hartu da, aipatu Klausulak xedatzen duen gehienezko %-aren arabera.

8. PREZIOAREN ORDAINKETA

Prezinoa hileroko ordainduko da, enpresa kontratistak dagokion faktura aurkeztu eta gero.

SAN TELMO MUSEOari eskaini zerbitzuengatik ordainduko den hileroko prezioa ondokoen batuketara izango da:

- Esleipenaren kopurua 12 hileroko kuotatan banatzeak ematen duen kopurua, informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzuari dagokionean.
- Hilabete horretan zehar dinamizazio-zerbitzuak (bitartekaritza-zerbitzua salbu) egin dituen saioen kopurua proposaturiko prezio unitarioaz biderkatuz (saioak 60 minutukoak direnean) edo prezio unitarioa bider 1,5z biderkatuz (saioak 90 minutukoak direnean) lorturiko kopurua.
- Bitartekaritza-zerbitzuak hilabete horretan zehar gauzatu dituen bitartekaritza-ordu guztiei bitartekaritza-zerbitzurako proposatu prezio unitarioa aplikatzerakoan lorturiko kopurua.

Batuketan ateratako kopuru horri dagokion BEZa aplikatuko zaio.

Enpresa kontratistak hilabete bati dagokion hileroko faktura hurrengo hilabeteko lehen hamabost egun naturalen barruan bidaliko du.

Fakturak emandako zerbitzuen zerrenda zehatza agertuko du eta, dagokionean, prezioa zehazteko erabili den prezio unitarioak ere.

SAN TELMO MUSEOak fakturan sarturiko zerbitzuei dagokien hilabetea bukatu eta hogeita hamar egun naturaleko epea izango du prezioa ordaintzeko, beti ere faktura aurreko epearen barruan bidali bada eta SAN TELMO MUSEOko onespena badu.

Orri honek zehazten duen xedetik kanpo edo, bere kasuan, SAN TELMO MUSEOak aurretik eskatu gabe eskaini diren lan edo zerbitzuek ez dute ordainik jasoko.

9. PREZIOEN BERRAZTERKETA

Ez da onartuko.

10. PUBLIZITATEA

Lizitazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta baita SAN TELMO MUSEOKO kontratatzaile-profilean ere.

Kontratuaren esleipena SAN TELMO MUSEOKO kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta SAN TELMO MUSEOKO kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

Aipatu profilerara sartzeko, ondoko webgunea erabiliko da:
www.donostiakultura.com

11. BERMEAK

Behin-behineko bermea: Ez da eskatuko.

Behin betiko bermea: Kontratuaren esleipendunak, aipatuaren gauzatzea bermatzeko, behin betiko berme bat jarri beharko du. Bere kopurua kontratuari esleitu balioaren % 5koa izango da, BEZ kanpo.

Eskaintza ekonomikorik hoberena aurkeztu duen lizitatzzaileak hamar egun balioduneko epea izango du aipatu bermea aurkezteko, SAN TELMO MUSEOAK horren inguruan bidalitako eskaria jaso eta hurrengo egunetik hasita.

SPKLTBaren 96. artikuluan xedaturiko bitartekoetako edozein erabil dezake horretarako.

Abal moduan aurkeztuz gero, aipatuak Orri honen **I. Eranskinean** jasotako eredia jarraituko du.

Eskudirutan aurkeztuz gero, Kutzako 2095 0611 00 1063470859 kontuan sartuko da.

Bermearen gauzatzearen egiaztatzea ezingo da bitarteko elektronikoen bidez egin.

Bermearen itzulpena SPKLTBaren 102. artikulua dioenaren arabera egingo da, behin bermearen epea bukatuta eta kontratistak kontratuko betebeharrak guztiak beteta.

Bermearen itzulpena SAN TELMO MUSEOAK aldeko txostena idatzi eta gero egingo da.

Esleipendunari ezarritako zehapen edo kalte-ordainak bermearen bidez burutuko balira, aipatuak 15 egun naturaleko epea izango du bermea osatzeko, dagokion kopuruaz, exekuzioaren egunetik hasita. Egin ezean, kontratua bertan behera uzteko arrazoi nahikoa izango da.

Kontratuan eginiko aldaketa baten ondorioz bere prezioa aldatuko balitz, bermea egokitu beharko da ere prezio berriarekiko proportzio zuzena gorde dezan. Horretarako, enpresak 15 egun naturaleko epea izango du, aldaketa-jakinazpena jaso duen egunetik hasita.

Orri honek xedatu ez dituen gaietarako, SPKLTBaren 95. artikulua eta ondokoetan ezarritakoa aplikatuko da.

12. GAITASUN BALDINTZAK

SAN TELMO MUSEOarekin kontratatzekeko gai dira jardutekeko gaitasun osoa duten, kontratatzekeko debekurik ez duten eta beren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiazta dezaketen pertsona natural edo juridikoak, Espainia zein atzerrikoak.

Lizitaziotik kanpo geldituko dira baldintza teknikoaren edo kontratua prestatzekeko dokumentuen idazketan parte hartu duten enpresek, beren partaidetza lehia librearen aurka badoa edo tratamendu pribilegiatua suposatuko balu beste enpresa lizitatzailleekiko.

Enpresa lizitatzailleek, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko eska daitekeen gaitasun profesional edo enpresariala izan beharko dute.

Pertsona juridikoek kontratuaren helburu den zerbitzuaren prestazioak beren Estatutu edo Sorrera-arauen xede, helburu edo jarduera-esparruaren barruan izango dituzte kontratuaren esleipendunak izan nahi badute.

SAN TELMO MUSEOarekin kontratatzekeko gai izango dira, nolana ere, Europar Batasuneko Estatu kideetako enpresak, beren jatorria den Estatuako legeen arabera kontratuaren xede diren zerbitzuak ematekeko gai badira; SPKLTBaren 58. artikulua dioena aplikatuko da ere.

Aipatu enpresen jatorri den Estatuako legeak baimen berezia izatea edo elkarte zehatz bateko kide izatea agintzen badu aipatu zerbitzuak eman ahal izateke, lizitatzailleek baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunetik kanpoko Estatuakoko pertsona fisiko edo juridikoek, beren gaitasuna frogatzeko, Espainiak beren Estatuan duen Misio Diplomatiko Egonkorraren edo enpresaren egoitza hartzen duen lurraldean duen Bulego Kontsularraren txostena aurkeztu beharko dute. Aipatu txostenak atzerriko enpresaren jatorri den Estatuak enpresa espainiarrei Administrazioarekin eta SPKLTBaren 3. artikuluan xedatu sektore publikoko erakunde, elkarte edo entitateekin kontratatzekeko gaitasuna ematen diela - baldintza berdintsuetan- frogatu beharko du.

SAN TELMO MUSEOarekin kontratatzeko gai izango dira xede horretarako eginiko aldi baterako enpresa-elkarteak. Horien eskritura publiko bidezko formalizazioa ez da bere aldeko kontratu-esleipena egin arte beharrezkoa izango; SPKLTBaren 59. artikulua dioena aplikagarria da.

Kaudimen ekonomiko eta finantzario eta tekniko edo profesionalaren inguruko gutxieneko baldintzak eta kontratuaren gauzatzeari giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa:

Lizitatuzaileek ondoko kaudimen ekonomiko eta finantzario eta tekniko edo profesionala izango dute:

- 3.000 euroko, gutxienez, negozio-zifra izatea azken hiru urteotan (2012, 2013, 2014) bisita gidatuen eta jarduera didaktikoen zerbitzuaren eta museo eta kultur zentroyen dinamizazioaren arloetan.

Lizitatuzaileek, bere kaudimenaren egiaztatzea osatzeko, kontratuaren gauzatzeari 5 pertsona gutxienez atxikitzeko konpromisoa hartu beharko dute. Pertsona horiek guztiek Preskripzio Teknikoen Orriko **5. Klausulak** ezarritako eskakizunak betetzeko gaitasun nahikoa izan beharko dute.

Aipatu konpromisoa kontratuko funtsezko betebeharra izango da SPKLTBaren 223.f) artikuluan ezarritako eraginetarako eta, ondorioz, konpromisorik ez hartzea kontratua bertan behera uzteko arrazoi nahikoa izango da, horrela baderitzo SAN TELMO MUSEOAK.

Enpresa kontratistak kontratuaren gauzatzeari atxiki dion lan-taldea bere kabuz aldatuko balu, kontratua bertan behera utzi ordez SAN TELMO MUSEOAK kendutako langileak beren lanpostuetara bueltatzeko eska diezaioke edo, bestela, azken hori ezinezkoa balitz kontratistaren ardura ez diren arrazoiengatik, prestakuntza eta eskarmentu berdinak dituen beste pertsonekin berehala ordezkatzeko eska diezaioke. Ordezkoek, nolana ere, SAN TELMO MUSEOaren oniritzia jaso beharko dute.

Eskatu kaudimena eta/edo gutxieneko giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko beste entitate batzuen kaudimen eta/edo baliabideez baliatu nahi diren lizitatuzaileek, bi entitateen arteko loturaren izaera juridikoa dena dela, Notario aurrean sinatu dokumentua aurkeztu beharko dute (**VI. Eranskin**eko eredia erabiliz). Inplikatu entitateek, aipatuan, ondokoa aitortu beharko dute: lizitatuzaileak lortu nahi duen lizitazioaren baldintzen eragin guztiak ezagutzen dituztela, eskatu kaudimena daukatela (egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztuz **13. Klausulak** dioenarekin bat) eta borondate osoa dutela lizitatuzailea esleipendun eginez gero kontratua exekutatzeko beharrezkoak diren bitarteko guztiak bere esku jartzeko (Kode Zibilaren 1257.2 artikulua dioena espresuki onartuz, bere ordezkapena edo aldaketa Administrazioaren oniritziaren mende geldituko delarik). Aipatu dokumentuaren aurkezpenak konpromisoaren onarpena ekarriko du SAN TELMO MUSEOaren aldetik, aipatu lizitatuzailea esleipendun izendatua izango balitz.

13. PROPOSAMENEN AURKEZPENA ETA DOKUMENTUAK

Proposamenak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, azken iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Proposamenak aurkeztearekin batera lizitatzailleak Orri hau, Preskripzio Teknikoen Orria eta kontratuko beste dokumentu guztiak baldintzarik gabe, eta salbuespenik gabe, onartzen ditu.

Orri hau eta Preskripzio Teknikoen Orria kontratatzaile-profilean daude eskuragarri. Aipatuan sartzeko, <http://www.donostiakultura.com> erabil daiteke.

Era berean, aipatu dokumentazioa DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN bulegoetan azter daiteke (Konstituzio Plaza 1, 20003 Donostia), astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30etara, azken iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita eta proposamenak aurkezteko azken egunera arte.

Lizitazio honetan parte hartu ahal izateko enpresa lizitatzailleek **eskura** aurkeztu beharko dituzte, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN aipatu bulegoetan eta Erregistro ordutegian (astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00tara, udako ordutegia salbu, 9:00etatik 13:30etara), eta epe barruan, HIRU GUTUN-AZAL ITXI (A, B eta C), ondoren zehaztuko diren dokumentuekin. Gutun-azaletan parte hartu nahi den lehiaketa, enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-deiturak eta bere kargua, telefono eta fax zenbakiak eta posta elektronikoko helbidea eta, halaber, lehenesten den jakinarazpenak jasotzeko bitartekoa, Orri honen **II**. Eranskinak agertzen duen eredia jarraituko duena.

Proposamenak aurkezteko azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna balitz epea hurrengo baliodun egunera arte luzatuko litzateke.

Gutun-azal bakoitzak ondoren ezarritako dokumentuak hartuko ditu eta sarturiko dokumentu guztien zerrenda zenbakitua izango du ere.

A GUTUN-AZALA.- "KONTRATATZEKO GAITASUNA"

Lizitatzailleek kontratatze gaitasunari buruzko gutun-azal bat aurkeztuko dute, ondoko dokumentuekin:

1. Lizitatzaillearen eta, dagokionean, bere ordezkarien jarduteko gaitasuna egiaztatze dokumentuak:

- Pertsona juridikoa diren enpresarien jarduteko gaitasuna beren jarduna arautzen duten sortze-dokumentua, Sorrera-arau edo sortze-ekitaldiaren bidez frogatuko da. Behar bezala erregistratuta egon beharko dute dagozkien Erregistro Publikoan, pertsona juridiko motaren arabera.

- Espainiarrak izan ez baina Europar Batasuneko Estatu kideetako hiritarrak diren enpresarien jarduteko gaitasuna beren enpresa hartzen duen Estatuko legearen arabera dagokien Erregistroan emandako izen-ematearen bidez edo

zinteko aitorten edo ziurtagiri bat aurkeztuz frogatuko da, Europako xedapenek diotenarekin bat.

- Europar Batasunetik kanpoko Estatuetakoen enpresariak Espainiak beren Estatuan duen Misio Diplomatiko Egonkorraren edo enpresaren egoitza hartzen duen lurraldean duen Bulego Konsularren txostena aurkeztuz frogatu beharko dute beren jarduteko gaitasuna. Aipatu txostenak atzerriko enpresaren jatorri den Estatuak enpresa espainiarrei Administrazioarekin eta SPKLTBaren 3. artikuluan xedatu sektore publikoko erakunde, elkarte edo entitateekin kontratatze gaitasuna ematen diela -baldintza berdintsuetan- frogatu beharko du.

- Pertsona fisikoa diren enpresariak, beren jarduteko gaitasuna frogatzeko, Nortasun Agiri Nazionala edo beren Estatuetakoen baliokidea aurkeztu beharko dute.

- Proposamenak hirugarrenen izenean sinatzen dutenek beren Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, eta baita botere nahikoa horretarako. Enpresa pertsona juridikoa balitz, botereak Merkataritza-erregistroan egon beharko du Merkataritza-erregistroaren Araudiko 94. artikulua horrela eskatzen duenean; edo, bestela, dagokion Erregistro Publikoan, pertsona juridikoaren arabera.

- Aldi baterako elkartearen parte hartu nahi duten enpresariak kide diren izenak eta baldintzak eta bakoitzaren partaidetza azalduko dute; halaber, esleipendun suertatuz gero aldi baterako elkartearen formalki sortuko dutelaren konpromisoa. Aldi baterako elkartearen parte hartu nahi duten enpresariak solidaritatez geldituko dira behartuta eta elkartearen ordezkari edo ahalduz bakarria izendatu beharko dute, botere nahikoa izango duena kontratuaren ondorioz sor daitezkeen eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko kontratuak dirauen bitartean, kopuru handiak kobratu edo ordaintzeko eman ditzaketen botere erkidetuen existentziari kalterik egin gabe.

Dokumentu guztien orijinala, edo konpultsatutako kopia egokia, aurkeztuko da.

2. **III. Eranskinak** dakarren ereduarekin bat doan aitortza arduratsua, lizitatuak SPKLTBaren 60.1 artikuluan ezarritako kontratatze debekurik ez duela jaso adieraziz.

Aipatu aitortzak beste aitortza espres bat eramango du, lizitatuak indarreko legediak zehazten dituen zerga eta Gizarte Segurantzarekin loturiko betebeharrak guztiak beteta dituela adieraziz. Proposamen ekonomiko hoberena aurkeztu dituen lizitatuak hamar egun baliaduneko epea izango du, SAN TELMO MUSEOAK eskaria egin eta hurrengo egunetik hasita, baldintza hau egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkezteko.

3. Kaudimen ekonomiko eta finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen dituzten agiriak, **12. Klausulak** diotenarekin bat.

Kaudimen ekonomiko eta finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatze azken hiru urteotan (2012, 2013 y 2014) bisita gidatuen eta

jarduera didaktikoen zerbitzuetako arloan eta museoak eta kultur zentroak dinamizatzeko zerbitzuen arloan eskaini diren zerbitzu esanguratsuen zerrenda zehatza aurkeztuko da, ondokoak sartuz: kopurua, data, hartzaile/bezeroa, publiko edo pribatua; aipatu hartzaile/bezeroen ziurtagiria aurkeztu beharko da ere.

4. Konpromisoa, esleipendun suertatuz gero **12. Klausulan** ezarritako giza baliabideak, gutxienez, kontratuaren gauzatzeari atxikiko zaizkiola aitortuz.

Aipatu konpromisoa kontratuko funtsezko betebeharra izango da SPKLTBaren 223.f) artikuluan ezarritako eraginetarako eta, ondorioz, konpromisorik ez hartzea kontratua bertan behera uzteko arrazoi nahikoa izango da, horrela baderitzo SAN TELMO MUSEOAK.

5. Bere kasuan, Adierazpenen notario-akta, beharrezko kaudimena eta gutxienerako giza baliabideak atxikitze konpromisoa egiaztatze lizitatuak beste erakundeen kaudimena eta bitartekoetan oinarritze nahia azaltzen duen kasuetarako, **IV. Eranskin** ereduarekin bat.

6. Atzerriko enpresek Espainiako auzitegi eta tribunalen jurisdikzioaren mende jarriko direla aitortu beharko dute espresuki, kontratuaren ondorioz zuzenki edo zeharkakoki sortu litezkeen auziak konpondu ahal izateko; bere kasuan, izan dezakeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egin beharko dio lizitatuak.

7. Jakinarazpenak jasotzeko lehenetsitako bitartekoa, Orri honen **II. Eranskin** daukan ereduarekin bat.

8. Aitortza arduratsua, lan arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak bete direla frogatzeko, **V. Eranskin** datorren ereduarekin bat.

Oharrak:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatuak eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda duten lizitatuak, 1. paragrafoan xedaturiko dokumentuen ordez, Erregistroko abokatu arduradunak sinaturiko ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete. Aipatu ziurtagiriarekin batera, lizitatuak sinaturiko aitortza arduratsu bat aurkeztuko da, dokumentuak zehazten dituen baldintzak aldatu ez direla aitortuz.
- b) SAN TELMO MUSEOAK egoki deritzon egiaztatze-lan guztiak egiteko edo dokumentu osagarri guztiak eskatzeko eskubidea izango du, lizitatuak aurkeztu duten informazioaren benetakotasuna egiaztatze.
- c) Atzerriko enpresen dokumentu guztiak gaztelera, edo bere kasuan euskarara itzulita egongo dira, ofizialki.

B.- Gutun-azala.- "PROPOSAMEN TEKNIKOA"

Lizitatuak proposamen teknikoari dagokion gutun-azal bat aurkeztu beharko dute, ondoko dokumentuekin:

- **Memoria teknikoa:**

Egingo den lanaren ezaugarriak deskribatu eta azalduko duen memoria. Zerrendatuko dituen osagaiak dira exekuzio-eredua, antolakuntza, erabiliko den metodologiaren proposamena Museoaren helburuak lortu ahal izateko (bisita gidatu, hizkuntza-eskakizun eta abarrei dagokienean), SAN TELMO MUSEOArekin lan egiteko modua (gorabeheren ebazpena, jarraipen-bilerak, etab.), **21. Klausulak** n) hizkian xedatzen dituen aldi bereko bisita gidatuen hizkuntzez gain bisita gidatuetan erabiliko diren beste hizkuntza osagarriak (germaniera, italiera eta errusiera bereziki).

Metodologia-proposamena ez da loteslea izango. SAN TELMO MUSEOAK alda dezake.

- **Giza baliabideak:**

Lizitazio honen abiapuntua da kontratuaren gauzatzeari atxikiko zaizkion langileen kalitateak kontratuaren gauzatzea nabarmenki baldintza dezakeela, zerbitzu intelektualei loturiko kontratua den heinean.

Testuinguru horretan, Orri honen **12. Klausulak** kontratuaren exekuziorako xedaturiko gutxienerako baliabideak baino langile gehiago atxiki dakizkioke zerbitzuari.

Era berean, Orri honen **12. Klausulak** kontratuaren exekuziorako xedaturiko gutxienerako baliabideei lotuta, Preskripzio Teknikoen Orriko **5. Klausulak** xedatu dituen gutxienerako bitartekoez haraindi doazen bitartekoak erabil daitezke.

Bi konpromisoak hurrengo Klausulan ezarritako baldintzen arabera baloratuak izan daitezke.

- **Bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzeko neurri zehatzak:**

Bere kasuan, bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzeko neurri zehatzen proposamena. Lizitatzailerak aipatuak kontratua exekutatu duten langileei aplikatzeko konpromisoa hartuko du.

Lizitatzailerak tentu handiz bete beharko du gutun-azal honetan sartuko diren dokumentuak, eduki eta formatuari dagokienean zehaztu jarraibideak jarraituz. Era berean, ezingo da eskaintzaren osagai ekonomikoak iragar edo iradoki ditzakeen erreferentziarik sartu.

Printzipio horiek betetzen ez dituzten eskaintzak alboratu eta prozeduratik kanpo geldituko dira.

SAN TELMO MUSEOAK, halaber, egoki deritzon egiaztatze-lan guztiak egiteko edo dokumentu osagarri guztiak eskatzeko eskubidea izango du, lizitatzailerak aurkeztu duten informazioaren benetakotasuna egiaztatzeko.

Gutun-azal honetan eskatu osagai guztiak aurkezten ez dituzten eskaintzak alboratu egingo dira.

C Gutun-azala.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"

Lizitzaileek beren proposamen ekonomikoa aurkeztu beharko dute. Aipatua Orri honen **IV.B Eranskinean** sarturiko ereduarekin bat joango da.

SAN TELMO MUSEOAK, esleipena aurretik zein ondoren eta kontratuaren gauzatzean zehar, A, B eta C gutun-azaletan sarturiko edukien benetakotasuna egiazta dezake, eta baita Preskripzio Teknikoen Orrian xedaturiko horiena ere. Enpresak aurkezturiko datu eta zirkunstantzien faltsutasuna kontratua bertan behera uzteko arrazoi nahikoa da, kontratistaren ardurako ez-betetzea den heinean.

Kontratua esleitu eta urtebetera, SAN TELMO MUSEOAK lizitzaileek aurkeztu dokumentuak suntsi ditzake, azken horiek aurretik erretiratu ez badituzte.

14. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Balorazio-irizpideak ondokoak dira, dagozkien zuhurtasunaz azalduta:

a) Proposamen teknikoa: **75 puntu gehienez.**

1. Memoria teknikoa: **50 puntu gehienez.**

Baloratuko diren osagaiak: kalitate teknikoa, exekuzio-eredua, antolakuntza, erabiliko den metodologiaren proposamena Museoaren helburuak lortu ahal izateko (bisita gidatu, hizkuntza-eskakizun eta abarrei dagokienean), SAN TELMO MUSEOAREKIN lan egiteko modua (gorabeheren ebazpena, jarraipen-bilerak, etab.), **21. Klausulak** n) hizkian xedatzen dituen aldi bereko bisita gidatuen hizkuntzez gain bisita gidatuetan erabiliko diren beste hizkuntza osagarriak (germaniera, italiara eta errusiera bereziki).

2. Giza baliabideak: **20 puntu gehienez.**

Orri honen **12. Klausulak** eskatzen duen atxikitze-konpromisoan ezarritako gutxieneko giza baliabideen prestakuntza eta egokitasuna baloratuko da, bai eta Orri honen **12. Klausulak** eskatzen duen atxikitze-konpromisoan ezarritako gutxieneko giza baliabideez gain atxikiko diren giza baliabide osagarrien prestakuntza eta egokitasuna ere. Aipatu prestakuntza eta egokitasunari dagokienean titulu, kategoria, espezialitate eta eskarmentuaz gain, hizkuntzen (frantsesera, ingelesera, germaniera, italiara eta errusiera bereziki) ezagutza bezalako alderdiak baloratuko dira ere.

3. Bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzeko neurri zehatzak: **5 puntu gehienez.**

Bere kasuan, bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzeko neurri zehatzen proposamena. Lizitatzailleak aipatuak kontratua exekutatu duten langileei aplikatzeko konpromisoa hartuko du.

b) Proposamen ekonomikoa: 25 puntu gehienez.

Honela banatuta:

- Dinamizazio-zerbitzuak (bitartekaritza-zerbitzua kanpo) 60 minutuko saioan eskaintzeko aurkeztu den prezio unitarioa: 11 puntu gehienez.
- Bitartekaritza-zerbitzuak ordu betez eskaintzeko aurkeztu den prezio unitarioa: 7 puntu gehienez.
- Informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzurako aurkeztu den prezioa: 7 puntu gehienez.

Proposamen ekonomikoi dagozkion puntuak ondoko formularen arabera baloratuko dira:

$$P = \text{Zerbitzuaren gehienezko puntuazioa} \times (1 - ((B_{\max} - B_n) / B_{\max}))$$

Non:

P = baloratu den lizitatzailleak lortu duen puntuazioa.

Beharpena = aurrekontu eta aurkeztu den eskaintzaren arteko diferentzia, eurotan

N eskaintza = baloratzen den eskaintza ekonomikoaren kopurua.

B_{\max} = prezio txikiena duen eskaintzak suposatzen duen aurrekontuarekiko beharpena

B_n = N eskaintzaren aurrekontuarekiko beharpena

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko ebaluazio-batzordea ondoko kideez osatuta egongo da:

- DONOSTIA KULTURAKO Kontratazio Saileko ordezkari bat.
- SAN TELMO MUSEOKO hiru ordezkari.

16. PROPOSAMENEN IREKIERA

Ebaluazio-batzordeak, lehenik eta behin, A gutun-azalean ("Kontratatzeko Gaitasuna") aurkeztu dokumentuak aztertuko ditu, epe eta formari

dagokienean, eta zuzen daitezkeen akats edo hutsuneak ikusiz gero 3 egun balioduneko epea emango dio lizitatzailari, aipatuak zuzen ditzan.

Ondoren, proposamen teknikoa daraman B gutun-azala irekiko da, aztertu eta baloratu ahal izateko.

C gutun-azalean sartu proposamen ekonomikoen irekiera publikoki egiaztatuko da. **II. Eranskinarekin** bat zehazturiko jakinarazpenak jasotzeko lehenetsitako bitartekoaren bidez, onarturiko lizitatzaille guztiek proposamen ekonomikoak irekitzeko ekitaldi publikoaren data, ordua eta lekua jasoko dituzte. Datu horiek, halaber, kontratatzaile-profilean argitaratuko dira (www.donostiakultura.com), 48 orduko gutxieneko aurrerapenarekin.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko ekitaldi publikoaren hasieran, bertaratu lizitatzailleek beren proposamen teknikoen balorazioa jasoko dute, beti ere horietako batek aipatua eskatzen duenean.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko ekitaldi publikoa bukatuta, beren azterketa eta balorazioa hasiko da.

Ebaluazio-batzordeak Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren (aurrerantzean, APKLAO) 84. artikuluan xedaturiko egoeretako batean dauden proposamenak baztertuko ditu eta aurkeztu proposamenen zerrenda bidaliko dio Kontratazio-organoari, beharrezko ordenan, **14. Klausulan** ezarritako balorazio-irizpideei jarraiki, eta eskaintza ekonomiko hoberena identifikatuko du.

Bere proposamena egin aurretik, egoki deritzon txosten tekniko guztiak eska ditzake.

Ebaluazio-batzordearen proposamena txosten juridiko baten xede izango da.

Ebaluazio-batzordeak eskaintza ekonomiko hoberena identifikatzeak ez dakar inolako eskubiderik lizitatzaille horren alde.

17. KONTRATUAREN ESLEIPENA

Kontratazio-organoak eskaintza ekonomiko hoberena aurkeztu duen lizitatzailari ondoko dokumentuak aurkeztea eskatuko dio, eskaera jaso eta hurrengo egunetik hasiko den hamar egun balioduneko epean.

- Zerga eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak guztiak beteta dituela egiaztatzen duten dokumentuak.

Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda dagoela egiaztatu beharko du, kontratuari dagokion epigrafean, alta dokumentua aurkeztuz azken ekitaldikoa bada edo zergaren azken ordainagiria aurkeztuz beste kasu guztietan. Nolanahi ere, zerga horretatik baja hartu ez dela adieraziko duen aitortza arduratsu bat aurkeztu beharko da.

- Orri honen **11. Klausulak** aurreikusten duen behin betiko bermea aurkeztu dela egiaztatzen duen agiria.
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu lizitazio-iragarkiaren gastuak ordaindu direla egiaztatzen duen agiria.
- Dagokionean, aldi baterako enpresa-elkartea legez eratu dela egiaztatzeko agiria. Aldi baterako elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da eta horrek kontratua amaitu arte sortuko diren eskubideak gauzatu eta betebeharrak betetzeko botere nahikoa izango du.
- Eskaintzan konprometitu diren giza baliabideak egiaz esleituko direla frogatzeko dokumentuak.

Kontratuaren gauzatzeari atxikitzeko konprometitu diren giza baliabideei dagokienean, Orri honen **12. Klausulak** zehazten duen gutxieneko kopurua izan edo **13. Klausulak** aurreikusten dituen giza baliabide osagarriak izan, aukeratu lizitatzailerak ondoko dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

- Kontratuaren gauzatzeari atxiki zaizkion pertsona guztien identifikazioa, izen-deiturez, beren curriculum vitae eta ondokoak adieraziko dituzten fitxekin batera:
 - Titulu akademiko ofiziala.
 - Eskarmentua arlo honetan.
 - Hizkuntza-eskakizunak, Preskripzio Teknikoen Orriak profil bakoitzerako eta langile osagarrientzako zehazten dituen baldintzak betetzen direla egiaztatuz
- Giza baliabide guztiak egiaz esleitu direla frogatzen dituzten agiriak.

SAN TELMO MUSEOAK egoki deritzon egiaztatze-lan guztiak egiteko edo dokumentu osagarri guztiak eskatzeko eskubidea izango du, lizitatzailerak aurkeztu duten informazioaren benetakotasuna egiaztatzeko.

Aipatu beharra dago Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (DPBLO, aurrerantzean) dioenari jarraiki eta giza baliabideei buruzko dokumentu horiek daramaten informazioaren izaera ikusita, (i) horien pilaketa eta trataera datu pertsonalen tratamendua suposatuko duela eta aukeratu lizitatzailerak izango dela Tratamenduaren Arduraduna; eta (ii) lizitatzailerak proposamenaren baitan aipatu datuak Kontratazio-organoaren esku uzteak datu horien lagapena suposatzen duela, lizitatzailerak lagatzailea delarik.

Eragin horietarako, aukeratu lizitatzailerak aurreko paragrafoan zehazturiko datuen tratamendua eta lagapenaren inguruan DPBLOak dioena betetzera behartuta dago. Zehazki, eta bestelako betebeharrak kalterik egin gabe, Tratamenduaren Arduradun den heinean aukeratu lizitatzailerak

DPBLOaren 11. artikuluan xedaturikoa bete beharko du eta bere ardura bakarra izango da interesatuen oniritzi kontziente eta informatua lortzea datu horien lagapenerako. Aipatua ekintza Kontratazio-organoaren aurrean egiaztatu beharko du, eskaera egiten zaion guztietan.

Aipatu betebeharra epe barruan beteko ez balu, lizitatzailleak bere eskaintza kendu egin duela ulertuko da eta, ondorioz, dokumentu berdinak eskatuko zaizkio ondorengo lizitatzaileri, eskaintzen sailkapenaren arabera.

Kontratazio-organoak bost egun balioduneko epea izango du, aipatu dokumentuak jaso eta hurrengo egunetik hasita, eta bi hilabeteko epea proposamenak irekitzen diren egunetik hasita, kontratua esleitzeko.

Kontratazio-organoak ebazpen arrazoituan emango du esleipena, lizitatzailerei Orri honen **II. Eranskinean** ezarritako ereduaren arabera zehaztu bitartekoak erabiliz jakinaraziko die eta SAN TELMO MUSEOko kontratatzaille-profilean argitaratuko du.

18. KONTRATUAREN OSATZE ETA FORMALIZAZIOA

Kontratua bere formalizazioaren bidez osatuko da.

Kontratua dokumentu pribatu bidez formalizatuko da, esleipenaren jakinarazpena jasotzen den egunean hasiko den hamabost egun balioduneko epean, eta dokumentua nahikoa izango da edozein erregistro publikotan gordetzeko.

Esleipendunak, halere, kontratua eskritura publikoa bihurtzea eska dezake. Kasu horretan, berak ordainduko ditu formalizazio-gastuak.

Kontratistaren ardura diren arrazoiak direla medio ezinezkoa balitz kontratua epe barruan formalizatzea SAN TELMO MUSEOAK **17. Klausulan** xedaturiko dokumentuak aurkeztea eska diezaike hurrengo lizitatzaileri edo lizitatzailerei; hamar egun balioduneko epea izango dute horretarako.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio-organoak kontratuaren arduradun bat izenda dezake. Bere eginkizuna izango da gauzatzea gainbegiratzea eta adostutako zerbitzuaren garapen egokia bermatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzea eta argibideak eskaintzea, aipatu organoak eman dizkion gaitasunen barruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisiko edo juridiko bat izango da, SAN TELMO MUSEOari lotuta ala kanpokoa.

Kontratuaren arduradunak emaniko argibideak halabeharrezkoak izango dira kontratistarentzat.

20. KONTRATUAREN GAUZATZEA

Kontratuaren gauzatzea ondoko baldintzen mende egongo da:

- a) Kontratua enpresa kontratistaren arrisku eta benturara gauzatuko da.
- b) Kontratua bere baldintza, Klausula Ekonomiko Administrazioen Orria, Preskripzio Teknikoen Orria, enpresa kontratistak aurkeztu duen eskaintza eta SAN TELMO MUSEOAK ematen duen jarraibideekin bat gauzatuko da.
- c) SAN TELMO MUSEOAK uneoro kontrola, egiazta, gainbegira eta ikuska dezake, bitartekoak direnak direla, kontratuko betebeharren betetze egokia eta beren gauzatze egokia.

Horretarako, SAN TELMO MUSEOAK egoki deritzon kanpoko laguntza guztiak eska ditzake kontratuko betebeharren betetzea eta egindako lanaren kalitate-maila aproposa egiaztatu edo auditoria egin ahal izateko.

Enpresa kontratista zerbitzuari buruz eskatzen zaizkion datu guztiak ematera behartuta dago eta beharrezko laguntza guztia eskainiko du, inolako kosturik gabe, eta kontratatu diren zerbitzuei loturiko lan eta administrazio arloetako dokumentuak aurkeztuko beharko ditu ere.

Enpresa kontratistak ez die inolako eragozpenik jarriko SAN TELMO MUSEOtik egindako ikuskaritza- eta kontrol-lanei.

- d) Kontratuaren gauzatzerako erabilitako langileei dagokienean, enpresa kontratistak zerga, lan, Gizarte Segurantzaren eta Lan Arriskuen Prebentzioaren arloetan indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko ditu.

Enpresa kontratistak, halaber, langileak laneko segurtasun, higiene eta osasunari buruzko indarrezko neurriak eta SAN TELMO MUSEOAK eman ditzaken funtzionamendu-arau orokorrak betetzen dituztela bermatuko du.

Langile guztiak enpresa kontratistaren mende egongo dira soilik, bere enpresa-izaeraren ondoriozko eskubide eta betebeharrak guztiak izango dituztela. Ezingo diote inolako aldarri edo eskaerarik egin SAN TELMO MUSEOARI aipatu lan-harremanean edo bestelako betebeharrei dagokienean sor daitezkeen arazoengatik.

Enpresa kontratista erantzule bakarra izango da kontratuaren gauzatzean lan egiten duten langile propio edo azpikontratatuak loturiko istripu edo erreklamazio guztien (auzitegian izan ala ez) aurrean; SAN TELMO MUSEOAK ez du enpresa kontratistaren zuzeneko edo zeharkako lan arloari (laneko segurtasun, higiene eta segurtasunari buruzkoa barne), Gizarte Segurantzari edo osasunari dagokion erantzukizunik hartuko. Halaber, enpresa kontratistak zerbitzua ematerakoan egon diren istripuen ondoriozko erantzukizun guztiak hartu beharko ditu.

- e) Nolanahi ere kontratistak, lan ezberdinak gauzatzekoan, aipatuak era egokian eta kontratuan xedaturiko epearen barruan egiteko beharrezkoak diren ekipamendu edo bitarteko osagarri guztiak jarri beharko ditu eskura; halaber, bere betebeharrak betetzeko behar dituen langile guztiak kontratatu beharko ditu, lan eta segurtasun arloetako indarreko arau guztiak betez horiei dagokienean.
- f) Kontratista lanen garapenean erabilitako datu, kalkulu, prozesu eta prozedura guztiak SAN TELMO MUSEOaren esku uztera behartuta dago.
- g) Kontratistak DPBLOak eta aipatua garatzeko araudian xedaturikoak bete beharko ditu kontratua indarrean dagoen bitartean eginiko jardueretan eta bere kontuz eta erabakiz erabiliko dituen izaera pertsonaleko datuen tratamenduari dagokionean, tratamendu horren Arduraduna baita; guzti hori, Orri honen **22. Klausulak** dioenari kalterik egin gabe.
- h) Nolanahi ere enpresa esleipendunak, lan ezberdinak gauzatzekoan, aipatuak era egokian eta kontratuan xedaturiko epearen barruan egiteko beharrezkoak diren ekipamendu edo bitarteko osagarri guztiak jarri beharko ditu eskura; halaber, bere betebeharrak betetzeko behar dituen langile guztiak kontratatu beharko ditu, lan eta segurtasun arloetako indarreko arau guztiak betez horiei dagokienean.

21. KONTRATUKO FUNTSEZKO BETEBEHARRAK

Ondokoak kontratuko funtsezko betebeharrak izango dira:

- a) Kontratua betetzea, bere klausula guztien edukiari, aplikagarri diren Orriei eta SAN TELMO MUSEOAK kontratistari helarazten dizkion jarraibide guztiei jarraiki.
- b) Kontratuaren gauzatzearen barnean sartzen diren operazioen ondorioz hirugarrenei sorturiko kalte-galera guztiak ordaintzea.
- c) Eskaintzan konprometitu diren giza baliabideak kontratuari atxikitzea.

Autodidaktak, propositiboak, autonomoak, sozialak, jendearekin irekiak izan beharko dute langileak; erakustea eta irakastea gogoko dutenak, enpatikoak, sortzaileak, zeharkakoak eta taldean lan egiteko kapazak.
- d) Koordinatzaile bat izendatzea, kudeaketa eta koordinazio gaitasunekin, Preskripzio Teknikoen Orriko **5.2 Klausulak** dioenarekin bat.
- e) Jarduerarako beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak lortzea.
- f) Lan (hitzarmen kolektiboa, ordainsariak, etab), Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloetan indarrean dauden lege-xedapenak betetzea; aipatua ez eginez gero, SA TELMO MUSEOAK ez du inolako erantzukizunik izango.

- i) SAN TELMO MUSEOAK kontratuaren garapen eta gauzatze egokia bermatzeko beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak (lan- edo informazio-bileretara joatea, esaterako) eskaintzea, ordain osagarririk jaso gabe. Betebehar hau berme-epea bukatu edo, bere kasuan, kontratua bukatu arte egongo da indarrean.
- g) Langile guztiek bidezko kontratua izango dute eta Gizarte Segurantzaren alta emanda egongo dira, kontratistaren kontura soilik. Ez da inolako harreman juridikorik egongo aipatu langileen eta SAN TELMO MUSEOAREN artean, ez kontratuan indarrean dagoen bitartean, ezta beste edozein momentutan ere.

SAN TELMO MUSEOAK langileen lan-kontratua edo Gizarte Segurantzako afiliazioa aurkeztea eska diezaioke, uneoro, esleipendunari.

Langileek ez dute inolako lan-harremanik izango, inoiz, SAN TELMO MUSEOAREKIN; era berean, aipatua ez da subrogatua izango kontratistaren eta bere langileen arteko kontratuko harremanetan.

- h) Gutxieneko zerbitzuak betetzea greba egunetan. Aipatua egingo ez balitz SAN TELMO MUSEOAK zerbitzuak betetzeko beharrezkoak diren kontratuak egiteko aukera izango du. Horien kopurua esleipendunari kenduko zaio, ordaindu beharreko dirutik.

Grebak irauten duen bitartean, eskaintzen diren zerbitzuei dagokien prezioa ordainduko da soilik.

- i) Langileen ordezkapena, beren zeregina eta horren iraupena direnak direla, aipatuek ez balute beren lana beharrezkoa den eraginkortasun eta diligenziaz egiten, gaitasunik ez balute, tentu handirik ez balute kontratatu zerbitzua eskaintzerakoan edo kontratuaren garapen onerako kaltegarriak diren ekintzak egingo balituzte. Eta hori, SAN TELMO MUSEOAK Koordinatzaileari ordezkapena egiteko eskaera egin eta hurrengo 72 ordutan. Langileen ordezkapenek ez diote erantzukizunik ekarriko SAN TELMO MUSEOARI, kontratista eta langileen arteko harremanei dagokienean, eta SAN TELMO MUSEOko aurretiko oniritzia izan beharko dute.
- j) Gaixotasun, opor, baimen, lizentzia, istripu eta abarren ondoriozko absentziak betetzeko langileak kontratatzea, kontratatu zerbitzuaren eskaintza eraginkor, etengabe eta berdina bermatuz. Eta hori, SAN TELMO MUSEOAK Koordinatzaileari ordezkapena egiteko eskaera egin eta hurrengo 72 ordutan. Aipatu ordezkapenek SAN TELMO MUSEOko aurretiko oniritzia izan beharko dute.
- k) Enpresa esleipendunak euskaraz edo gaztelaniaz aldibereko lau bisita eta frantseseraz eta/edo ingeleseraz bi bisita egiteko aukera ziurtatuko du.

Klausula honetako betebeharrak kontratuko funtsezko betebeharrak izango dira SPKLTBaren 223.f) artikuluan ezarritako eraginetarako eta, ondorioz, aipatuak ez betetzea kontratua bertan behera uzteko arrazoi nahikoa izango da, horrela baderitzo SAN TELMO MUSEOAK.

22. DATUEN BABESA

Kontratu honetan sarturiko zerbitzuen eskaintzak ondokoak eskatuko ditu, beren edukiarri dagokionean: (i) kontratistak datu pertsonalen tratamendua egin beharko du SAN TELMO MUSEOAREN eta/edo aipatua Tratamenduaren Enkargatutzat jotzen duten beste entitateen kontura; eta (ii), kontratista SAN TELMO MUSEOA Tratamenduaren Arduradun edo Enkargatutzat duten fitxategietan sarturiko datu pertsonalak erabiltzeko gai izango da.

Testuinguru horretan, kontratistak DPBLOan ezarritakoa (9., 10. eta 12. artikulua bereziki), DPBLOa garatzeko Araudia onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak (aurrerantzean, DPBLOA) ezarritakoa eta aipatuak garatzen dituzten beste xedapen guztiak bete beharko ditu.

Testuinguru horretan, eta DPBLOak hala dioelako kontratistak, Tratamenduaren Arduradun edo Tratamenduaren Azpi-arduradun den heinean, datuak erabili ahal izateko beharrezkoa den kontratua sinatu beharko du SAN TELMO MUSEOAREKIN. Kontratuak DPBLOAREN 12. artikulua eta DPBLOAREN 20. artikulua xedatzen dituzten eduki eta izaera izango ditu.

Datuak erabili ahal izateko aipatu kontratua lizitazio honen xede den kontratua sinatzeko une berean sinatu beharko da.

Nolanahi ere, eta datuak erabili ahal izateko kontratuak dioena alde batera utzita, kontratazio honen xede diren zerbitzuen eskaintzari lotuta, enpresa kontratistak ondoko neurriak hartuko ditu:

- DPBLOa, DPBLOA eta kontratua esleitzeko egunean edo bere iraupenean zehar indarrean egon daitezkeen beste garapen-neurri guztiak bete beharko ditu.
- DPBLOAREN 5. eta 6. artikuluek aurreikusten duten interesatua informatzeko eta bere oniritzia lortzeko betebeharra beteko du. Aipatu eraginetarako, eta enuntziatio-izaera hutsez, enpresa kontratistak ondoko ekintzak gauzatu ditu, gutxienez:
 - Beharrezko baliabideak erabiliko ditu (esaterako, informazio-klausulak formulario eta interesatuekin erabiliko diren dokumentu guztietan, etab.); klausulak ezarri beharko duena da (i) datuen tratamendua SAN TELMO MUSEOAREN edo aipatua Tratamenduaren Enkargatutzat jotzen duten hirugarrenen kontura egiten dela, kasuaren arabera; (ii) Orri honen xede diren zerbitzuen gauzatzean lorturiko izaera pertsonaleko datuak SAN TELMO MUSEOKO edo aipatua Tratamenduaren Enkargatutzat jotzen duten hirugarren horien jabetzako fitxategi batean gordeko direla; eta (iii) horrenbestez SAN TELMO MUSEOA edo aipatua Tratamenduaren Enkargatutzat jotzen duten hirugarren hori tratamenduaren Arduradun bakar eta eskusiboa dela eta enpresa kontratista Tratamenduaren Enkargatu/Azpi-enkargatu hutsa dela.
 - Interesatuekin eginiko kontaktua posta elektronikoko bidez gauzaten denean, interesatuei bidalitako posta bakoitzak informazio-oharrak eramango ditu bere behealdean.

- Interesatuekin eginiko kontaktua telefono bidez egiten denean, aurrez grabaturiko ohar bat sartuko da, interesatuei ondokoak jakinaraziz, espresuki eta argiro, kontaktua hasi baino lehen: (i) izango duten elkarrizketa grabatua izan daitekeela; eta (ii) aurreko alderdiak.
- Enpresa esleipenduneko langile bakoitzak bere eginkizunetarako beharrezkoak dituen datu eta/edo baliabideak erabiltzeko aukera izango du soilik.
- Zerbitzuen eskaintza, edo bere zati bat gutxienez, aurrez aurre egingo denez SAN TELMO MUSEOko lokaletan, enpresa esleipenduna eta bere langileak SAN TELMO MUSEOAK datuak babesteko uneoro indarrean dituen segurtasun-neurriak betetzera behartuta daude.
- SAN TELMO MUSEOko lokaletatik kanpo egiten duen datuen tratamenduari dagokionean, kontratistak DPBLOAK xedatua betetzeko segurtasun-neurriak hartu beharko ditu.
- Debehatuta dago SAN TELMO MUSEOaren jabetza diren fitxategietatik edo aipatua Tratamenduaren Enkargatutzat duten fitxategietatik harturiko benetako datuak erabiltzea frogak egiteko.
- SAN TELMO MUSEOaren eskaera jasotzen duen bakoitzean, SAN TELMO MUSEOAREN eta/edo aipatua Tratamenduaren Enkargatutzat jotzen duten hirugarren aldean kontura trataturiko datuen eta aipatuek eskaini dioten dokumentuen konfidentziasuna eta integritatea bermatzeko hartu dituen neurrien azalpen-memoria bat aurkeztu beharko du.
- Aipatu segurtasun-neurrien aplikazio eta jarraipenaz zuzenean arduratzen den/diren pertsona/ak jakinaraziko dizkio SAN TELMO MUSEOARI.
- Datu pertsonalak babesteko indarrean dauden arauetatik datozen betebeharrak jakinaraziko dizkie langileei.
- Enpresa esleipenduna eta lizitazio honen xede den kontratua gauzatuko duten bere langileak kontratua indarrean dagoen bitartean maneiatu dituzten datu, dokumentu eta gaien inguruko sekretu profesionala gordetzera behartuta daude, bai eta aipatuak behar bezala gordetzera.

23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO BEHARRA

Esleipenaren publizitateari eta lizitzaileei eskaini behar zaien informazioari buruz Orri honek dioenari kalterik egin gabe, SAN TELMO MUSEOAK ezingo du lizitzaileek konfidentziaz jotzen duten beren informazioa zabaldu; baldintza honek sekretu tekniko eta komertzialei eragiten die bereziki.

Kontratistak kontratuaren gauzatzean zehar maneiatzen duen informazioaren konfidentziasuna gorde beharko du, kontratuko Orriek aipatua konfidentziala dela zehaztu badute; baita informazioaren izaerak hori egitea eskatzen badu ere.

Konfidentziasuna gordetzeko behar honek ez du amaierarik.

Era berean, eta DPBLOak dioenari jarraiki, datu pertsonalak tratatzen dituztenez SAN TELMO MUSEOaren eta/edo aipatua Tratamenduaren Enkargatutzat jotzen duten hirugarrenen kontura, kontratista eta bere langileak horien inguruko sekretu profesionala mantentzera eta horiek gordetzeko beharra betetzera behartuta daude.

24. IRUDI ESKUBIDEAK ETA JABETZA INTELEKTUALA

SAN TELMO MUSEOak eta kontratistak berak lizitazio honen xede diren zerbitzuak gauzatzeko saioak bideokameraz eta/edo beste bitarteko tekniko egokien bidez graba ditzaketenez, bigarrenak SAN TELMO MUSEOarekin batera lan egin beharko du aipatu zerbitzuetan parte hartu duten langile guztiek aipatu grabaketa onar dezaten eta SAN TELMO MUSEOA espresuki baimendu dezaten: (i) beren irudi era ahotsa erabiltzera; eta (ii) egun ezagutzen diren bitarteko tekniko guztiez erreproduzitzera, erreproduzioaren helburua SAN TELMO MUSEOko xedeak lortzen laguntzea denean.

Era berean, aipatu saioetako erregistro/grabaketan hirugarrenen irudi eta ahotsak grabatuko balira, kontratistak SAN TELMO MUSEOarekin bat lan egiteko konpromisoa hartuko du aipatu hirugarrenek aurreko paragrafoan zehazturiko baimenak eman ditzaten, bereziki kontratistaren langileak direnean saio zehatz hori erregistratu/grabatu dutenak.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoetan zehazturiko eta lizitazio honen xede diren zerbitzuen gauzatzean sorturiko ikus-entzunezko material horren edukiak sortaraz ditzakeen Jabetza Intelektualeko eskubideen jabe bakarra SAN TELMO MUSEOA izango da. Zentzu horretan, esleipendunak SAN TELMO MUSEOari lagako dizkio, eskusiboki eta doan, mundu osorako eta legeak aurreikusten duen gehienezko epean zehar, bere kasuan bere jabetzakoa izan zezakeen ikus-entzunezko material hori egun ezagunak diren bitarteko guztiez baliatuz osotasunean edo partzialki erreproduzitzeko eta hedatzeko eskubideak.

Ondorioz, esleipendunak ezingo du zerbitzuen gauzatzean zehar lorturiko ikus-entzunezko materiala erabili, ezta publizitate-xedetarako ere, SAN TELMO MUSEOko aurretiazko baimen espres eta idatzia izan ezean. Aipatu baimenak ez dakar, inolaz ere, denboran zehar edukia erabili eta/edo ustiatzeko baimenik. SAN TELMO MUSEOaren baimena lotu beharko da erabilera bakoitzerako.

25. ZEHAPENAK

Kontratistak bere ardura diren arrazoiengatik Museoaren erabiltzaileek erreserbatutako ordutegiekiko atzerapenez jokaturiko balu dinamizazio-saioak gauzatzekoan SAN TELMO MUSEOAK bi aukera izango ditu: alde batetik, kontratua bertan behera uztea **29. Klausulak** dioenaren arabera; edo

bestetik, bere gauzatzearekin jarraitzea. Bigarren kasu honetan SAN TELMO MUSEOAK saioaren prezioa gehi erreserba egin duten pertsonak ordaindu zuten dirua (balizko gastuak barne) kenduko du, zehapen gisa, ordaindu beharreko prezioetik.

Nolanahi ere, Klausula honen ondorioz ezarritako zehapen guztiak sorturiko kalte-galerei gehituko zaizkie.

Era berean, enpresa kontratistak gauzatze kaskarra egingo balu edo bestelako kontratuko betebeharrak beteko ez balitu, SAN TELMO MUSEOAK sorturiko kalte-galerei ondoriozko ordaina egitea eska diezaiokie kontratistari.

Kontratuaren gauzatzearekin jarraitzea erabakiko balu ere, atzerapen edo exekuzio kaskarraren ondoriozko ez-betetzeak mantentzen diren bitartean SAN TELMO MUSEOAK kontratua bertan behera uztea erabaki dezake, aipatu eraginekin.

Zehapenek pilatutako kopurua kontratistari ordainketa bakar edo partzial gisa ordaindu behar zaion prezioetik edo behin betiko bermetik kenduta gauzatuko da, lehen kasua ezinezkoa denean. Zehapena bermea baino handiagoa izango balitz, dagokion kexa aurkeztuko da.

Nolanahi ere, kontratua bertan behera utzi edo horrekin jarraitzea erabakiz gero, SAN TELMO MUSEOAK zerbitzuen jarraipena erabaki dezake, bere kabuz, egoki deritzon epean zehar eta hirugarrenen bidez. Ekintza horren kostua kontratistari egotziko dio, Klausula honetan xedaturiko kalte-ordain eta zehapenei kalterik egin gabe.

26. KONTRATUAREN ALDAKETAK

SPKLTBaren 107. artikulua xedaturiko baldintzak emango balira, Kontratazio-organoak kontratua aldatzeko gaitasuna izango du.

Orri honen **7. Klausulan** eta **1. Klausularen** hirugarren paragrafoan ezarritakoan oinarrituta eta kontratua formalizatu eta gero agertu beharrak behartuta SAN TELMO MUSEOAK egoki baderitzo Preskripzio Teknikoen Orriko 8.1 Klausulak ezartzen duen informaziorako zerbitzuaren ordutegia eta/edo Preskripzio Teknikoen Orriko 8.2 Klausulak ezartzen duen bitartekaritza-zerbitzuaren ordutegia zabaltzea eskatzea kontratistari, horretara behartuta egongo da hau.

Horrela bada, enpresa kontratistak prezio zehatza ezarriko dio, halabeharrez, informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzuaren ordu bakoitzari. Aipatua kalkulatzeko enpresa kontratistak informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzua emateko eskaini zuen urteko prezioa 1043z zatituko du. Bitartekaritza-zerbitzua prezio berebean eskaini beharko du ere.

Aldaketak, nolanahi ere, SAN TELMO MUSEOAK eskatuta eta Orri honen baldintzekin bat tramitatuko dira.

Zabaltzearen ondorioz informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzuak eta/edo bitartekaritza-zerbitzuak izango dituzten ordutegi berriak gehigarri batean zehaztuko dira. Bi aldeek, entitate kontratzaileak eta enpresa kontratistak, aipatu gehigarria sinatu beharko dute, dagokion kontratura erantsiz.

Orri honen 7. Klausulan eta 1. Klausularen hirugarren paragrafoan ezarritakoaz aparte, SPKLTBaren 107. artikulua xedaturiko baldintzak emango balira Kontratazio-organoak kontratuak aldatzeko gaitasuna izango du.

27. KONTRATUA ETETEA

SAN TELMO MUSEOAK kontratua etetea erabakiko balu edo aipatu etena SPKLTBaren 220. artikuluari jarraiki (aplikagarria ondorio hauetarako) gertatuko balitz, etenaren arrazoiak eta kontratuaren gauzatzearen egoera azalduko duen akta bat egingo da.

Etena erabakita, SAN TELMO MUSEOAK izan dituen egiazko kalte-galerak ordainduko dizkio kontratistari.

28. PRESTAZIOA JASOTZEA

Kontratua amaitutzat joko da, enpresa kontratistari dagokionean, honek prestazio osoa gauzatu duenean, kontratuaren baldintzekin bat eta SAN TELMO MUSEOAREN oniritziarekin.

SAN TELMO MUSEOAK erabakiko du enpresa kontratistak kontratuaren gauzatzea bere baldintza eta betebeharrak betez egin duen ala ez; egoki baderitzo, kontratatutako zerbitzuen gauzatzea edo bere harreran egondako akatsak zuzentzea eska diezairoke kontratistari.

Egindako lanak kontratatutako zerbitzuarekin bat ez badatoz, enpresa kontratistaren ardura diren akats edo bizioen ondorioz, SAN TELMO MUSEOAK aipatuei uko egin diezaike eta, ondorioz, horiek ez ordaintzeko gaitasuna eta horiengatik ordainduriko dirua berreskuratzeko gaitasuna izango du. Eta hori, **25. Klausulak** dioenari kalterik egin gabe; hau da, SAN TELMO MUSEOAK xedaturiko zehapenak eska ditzake eta baita atzerapenagatik, kontratuaren xede den zerbitzua behar bezala ez gauzatzeagatik edo beste ez-betetze guztiengatik dagokion kalte-ordainaren ordainketa ere.

29. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA

Kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango dira SPKLTBaren 223. artikulua a) -85. artikulua dioenari kalterik egin gabe-, b), c), d), e), f), g) eta h) hizkiek xedaturikoak eta, orokorrean, kontratuko betebeharrak ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikulua zehazten duen bezalaxe.

Klausula honek kontratua bertan behera uzteko xedatzen dituen egoera guztietan automatikoki aplikatuko da aipatua. Baldintza bakarra da enpresa kontratistari bidali behar zaion jakinarazpen oharrazlea.

Aipatu jakinarazpena jaso eta gero, enpresa esleipendunak berehala entregatu beharko dizkio SAN TELMO MUSEOARI, honek hala eskatzen badio, kontratatu zerbitzuaren gauzatzean data horretara arte sorturiko dokumentu guztiak, SAN TELMO MUSEOAK entregatu zizkion dokumentu guztiekin batera.

SAN TELMO MUSEOAK gauzatze-maila zehaztuko duen akta bat egingo du; honela, betetzat jotzen dituen zerbitzuak definituko ditu eta baita bete gabe gelditu direnak, ez-betetze horren zioekin batera. Horrela, SAN TELMO MUSEOAK kontratuaren gauzatzearekin jarraitu ahal izango du, bere kabuz edo hirugarrenen bidez.

Guzti hori, egin beharko den kontratuaren likidazio ekonomikoari kalterik egin gabe. Aipatu likidazioa ondoko baldintzei jarraiki egingo da.

Klausula honetan zehazturiko arrazoen ondorioz eta indarreko legediak zehazten dituen guztietako baten ondorioz kontratua bertan behera geldituko balitz, erantzukizun ekonomikoak kontratua egiaz bertan behera utzi eta dokumentu guztiak entregatu eta gero kitatuko dira; egintza horrek ez du eraginik SAN TELMO MUSEOAK gauzatzearekin jarraitzeko har dezakeen erabakiarengan.

Kontratua bertan behera geratzen den guztietan enpresa kontratistak, printzipioz, gauzaturiko lan guztiei dagokien prezioa jasotzeko eskubidea dauka.

Kontratua bertan behera uzteko arrazoia enpresa kontratistaren arduraren denean SAN TELMO MUSEOAK, dagokion kalte-galera eta kalte-ordain guztiei kalterik egin gabe, eta aipatuei gehituta, kontratuari esleituriko balioaren % 20a kenduko dio ordaindu beharreko kopuruari.

Aipatutako kopuruak behin betiko bermetik eta enpresa kontratistak jasotzeko duen prezioetik kenduko dira eta, bere kasuan, zehapena azken biak baino handiagoa balitz, dagokion kexa aurkeztuko da.

30. ZUZENBIDEKO ARAUBIDEA

Kontratuak pribatuak dira. Beren prestaketa eta esleipena Klausula Ekonomiko Administrazioaren Orriak eta Preskripzio Teknikoen Orriak arautzen dituzte eta aurreikusi ez den osagai orori dagokionean, SAN TELMO MUSEOko kontrataziorako barne-jarraibideak eta SPKLTBak herri-administrazio ez diren eta botere esleitzailerik diren sektore publikoko entitateen arteko arauaketa hamonizatupekoak ez diren kontratazio prozedurak arautzeko xedatzen dituen arauak.

Bere eragin eta iraungipenari dagokienez, kontratua Klausula Ekonomiko Administrazioaren Orriak eta Preskripzio Teknikoen Orriak arautuko dute eta

horiek kanpo gelditu diren osagaiei dagokienean, zuzenbide pribatuaren arauak. Nolanahi ere, SPKLTBaren I. Liburuko V. Tituluak kontratuen aldaketei buruz xedatzen dituen arauak ere aplikatuko zaizkio kontratuari.

Azkenik, Orri honek aipatu arau-testuak aipatzen dituen guztietan SPKLTBa, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 EDa eta APKLAOa aplikatuko dira.


31. ESKUMENeko JURISDIKZIOA

Jurisdikzio zibila izango da kontratuaren prestaketa, esleipen, eragin, betetze eta iraungipenaren inguruan sor daitezkeen auziak konpontzeko eskumena izango duena.

Auziak kontratuaren ingurukoak direnean, bi aldeek Donostiako Epaitegi eta Auzitegietara joango dira.

Donostian, 2015eko urriaren 8an

Jaime Otamendi Muñagorri

jaime  donostiakultura.com
Kudeatzailea
San Telmo Museoa, S.A.

